

# UROLA

## BIDE BERDEA VÍA VERDE

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

## SARRERA
INTRODUCCIÓN

Urolako Bide Berdea ibilbide erakargarria da, oinezkoentzako nahiz txirrindularientzako egokia. Guztiz amaitzen dutenean haran osoa lotuko du. Bere izena Urola ibaiari zor dio; ibaia Aizkorriko mendi-hegaletan sortu eta Zumaiaraino iristen da, eta hantxe isurtzen du daraman ura Kantauri Itsasora. Hemen azaltzen den informazioak Zumarraga eta Zumaiako udalerriak elkartzen zituen Urolako trenbide elektriko zaharraren jatorrizko distantzia baino ibilbide luzeagoa biltzen du, izan ere, hasiera Legazpiko Mirandaola parkean adierazten baita, eta 37,5 kilometrotan barrena bidegorria eta bide berdea tartekatzen ditu, tunel eta zubi ugari dituen ibilbidea eginez. Bidea Zestoako Iraeta auzoraino iristen da etenaldirik gabe. Puntu horretatik aurrera, 4 kilometroz, ibilbidea soilik errepidez egin daiteke Zumaiako Narrondo auzoraino, eta bertan berriz ere oinezkoentzako eta txirrindularientzako egokituta dago. Azken kilometroek Zumaiako zamalanetako kai zaharrera hurbiltzen gaituzte, eta kaiak ibilbide turistiko honen amaiera markatzen du. Mugikortasunari nahiz turismoari dagokionez baliabide bikaina da, inolako zalantzarik gabe, eta ezin zara geratu ibilbidea egin gabe.

*La Vía Verde del Urola es un atractivo itinerario apto tanto para peatones como para ciclistas, que cuando esté finalizada en su totalidad unirá todo el valle, que debe su nombre al río Urola, desde su nacimiento en las faldas del Aizkorri hasta Zumaia, donde desemboca en el Mar Cantábrico. La información que aquí se muestra abarca una distancia mayor a la originaria del antiguo ferrocarril eléctrico del Urola que unía los municipios de Zumarraga y Zumaia, pues se señala el inicio en el parque de Mirandaola de Legazpia, y durante 37,5 kilómetros transcurre por tramos que intercala carril bici y vía verde en un trazado salpicado de túneles y puentes. La vía llega sin interrupción hasta el barrio de Iraeta en Zestoa. En este punto y durante 4 kilómetros el trazado solo puede ser realizado por carretera hasta el barrio Zumaiarra de Narrondo, donde vuelve a estar acondicionado para peatones y ciclistas. Los últimos kilómetros nos acercan hasta el antiguo muelle de carga de Zumaia que marca el final de este turístico recorrido. Sin duda un excelente recurso tanto de movilidad como de turismo que no debes perderte.*

## IBILBIDEA / SARBIDEAK
RECORRIDO / ACCESOS

Zuk aukeratuko duzu abiapuntua. Hainbat puntutatik sar zaitezke bide berdean, eta zuk aukeratutako tartea goza dezakezu. Ezagutu Urolako Bide Berdea zure aukeretara ondoen egokitzen den moduan.

*Tú eliges el punto de partida. Puedes acceder a la vía verde desde diferentes puntos y disfrutar del tramo que tú elijas. Descubre la Vía Verde del Urola como mejor se ajuste a tus posibilidades.*

MIRANDAOLA ······ ZUMAIA

BIDE BERDERAKO **SARBIDEAK** | **ACCESOS** A LA VÍA VERDE

1. **MIRANDAOLA** · P 43.036945, -2.337254 — Mirandaola Parkea / *Parque de Mirandaola (Legazpi)*
2. **URRETXU-ZUMARRAGA** · P 43.087366, -2.319746 — Geltoki intermodala / Estación Intermodal
3. **AIZPURUTXO** · P 43.133059, -2.352039 — Aizpurutxo auzoa / *Barrio Aizpurutxo*
4. **AZKOITIA** · P 43.177772, -2.315373 — Jorge Oteiza Frontoiak / *Frontones Jorge Oteiza*
5. **LOIOLA** · P 43.174647, -2.279218 — Loiolako geltokia / *Estación de Loiola*
6. **AZPEITIA** · P 43.179473, -2.262862 — Garmendia auzoa / Barrio de Garmendia
7. **ZESTOA** · P 43.240352, -2.260547 — Zestoa
8. **IRAETA** · P 43.256056, -2.259149 — Iraeta
9. **ZUMAIA** · P 43.296168, -2.254034 — Kirol portua / Puerto Deportivo




Iturria/Fuente:
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.
geoEuskadi

## BIDEKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN DE RUTA

| | |
|---|---|
| **Ibilbidea** \| Trayecto: | **Lineala** \| Lineal |
| **Zailtasuna** \| Dificultad: | **Ertaina** \| Media |
| **Lurzorua** \| Firme: | **Lur trinkotua / asfaltoa** \| Tierra compactada / asfalto |
| **Denbora** \| Tiempo: | **4-5 horduak** \| horas |
| **Desnibela** \| Desnivel: | **+149 m.** |
| **Hasiera** \| Inicio: | Mirandaola / Zumaia |

**44,3km**







## KULTURA-ETA INDUSTRIA- ONDAREA
PATRIMONIO CULTURAL E INDUSTRIAL

1920tik 1926ra bitarte Urolako trenbide elektriko desagerturako eraiki zen azpiegituran barrena doa Urolako bide berdea. 36 kilometroko trenbide horrek Zumarraga eta Zumaia lotzen zituen, Gipuzkoako haran malkartsu honetan barrena. Trenbidearen iraganaren lekuko, jatorrizko ibilbidea dugu, egun bide berde bihurtu dena, 29 tunelak eta 19 zubi eta zubibideak barne, haietako asko José Eugenio Ribera Dulaste ingeniariak diseinatuak, hormigoi armatuaren aitzindarietako bat izanik gure herrialdean.

Urolako trenbide historikoan barrena 13 geltoki dotore ageri dira, eta Ramón Cortázar Urruzola donostiar arkitektoak diseinatu zituen mugarri horiek, neoeuskal estiloan. Batzuk, Zumarraga, Iraeta edo Arroa adibidez, euskal baserriaren formetan oinarritu ziren. Beste batzuek, Azpeitiak edo Zestoa-Bainuetxeak adibidez, inguruetako dorretxeak dakartzate gogora. Azkenik, Loiolako geltokian begi-bistakoa da aldameneko Santutegiarekin duen lotura. Eraikin horiei behatuz ikuspegi bikaina lor dezakegu korronte arkitektoniko horren inguruan, baita trenaren iraganeko erabilera eta premien inguruan ere.

*La vía verde del Urola recorre la infraestructura construida entre 1920 y 1926 para el desaparecido ferrocarril eléctrico del Urola que, a lo largo de sus 36 kilómetros a través de este agreste valle guipuzcoano, enlazaba las localidades de Zumarraga y Zumaia. Testimonio de su pasado es el trazado original, ahora vía verde, incluidos sus 29 túneles y sus 19 puentes y viaductos, muchos de ellos diseñados por uno de los pioneros del hormigón armado en nuestro país, el ingeniero José Eugenio Ribera Dulaste.*

*El histórico trazado del ferrocarril del Urola se encuentra jalonado por 13 elegantes estaciones, diseñadas en estilo neovasco por el arquitecto donostiarra Ramón Cortázar Urruzola. Algunas, como Zumárraga, Iraeta o Arroa, están inspiradas en las formas del caserío vasco. Otras, como Azpeitia o Zestoa-Balneario, en las casas-torre del entorno, mientras que en el caso de Loiola salta a la vista su vinculación con el vecino Santuario. Contemplar estos edificios nos ofrece una magnífica panorámica sobre esta corriente arquitectónica y, también, sobre los usos y necesidades del ferrocarril en el pasado.*



Azpeitiako geltokia | *Estación de Azpeitia*



Lurrun-trena | *Tren de vapor*



Azkoitia 1981
Tren elektrikoa | *Tren eléctrico*

## IKURRAK | SIMBOLOGÍA

| | |
|---|---|
| **BIDE BERDEA** | **VÍA VERDE** |
| ERREPIDE-TARTEA | *TRAMO POR CARRETERA* |
| Kontuz/Zailtasuna | *Precaución/Dificultad* |
| Informazioa *Información* | Jatetxea/Taberna *Restaurante/Bar* |
| Ostatuak *Alojamientos* | Kanpina *Camping* |
| Autokarabanen eremua *Área autocaravanas* | Atsedenlekuak *Áreas de esparcimiento* |
| Konponketa-puntua *Punto de reparación* | Bizikletak alokatzekoa *Alquiler de bicicletas* |
| Eraikin erlijiosoa *Edificio religioso* | Interes monumentala *Interés monumental* |
| Tren geltokia *Estación de tren* | Museoak/Interpretazio-Zentroak *Museos/Centros de interpretación* |
| Osasun-etxea/Ospitalea *Centro de salud/Hospital* | Bainuetxea *Balneario* |

**Zenbait tunel zeharkatzen ditu bide berde honek, gehienak argiztatuak, baina argiak edo kopetakoak erabiltzea gomendatzen da.** / Esta vía verde atraviesa túneles, la mayoría iluminados, pero se recomienda el uso de luces o frontales.


EUSKADI BASQUE COUNTRY

gipuzkoako bidegorriak

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

iraurgi berritzen

UGGASA
Urola Garaiko Garapenerako Agentzia

EXPLORE SANSEBASTIAN REGION

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

www.euskadituriismo.eus

## NAHITAEZ BISITATU BEHAR DUZU...
## NO DEJES DE VISITAR...



Km **0** — 1

### Mirandaolako Burdinola
### Ferrería de Mirandaola

XVI.mendeko burdinola honetan ez bakarrik makineria baizik eta olagizonen bizimodua ikusteko aukera eskaintzen digute.

Burdinolarekin bat Euskal Burdinaren Museoa bisitatu daiteke.

*Ferrería hidráulica del siglo XVI donde se puede ver toda la maquinaria y el funcionamiento de la ferrería así como la vida de los ferrones y el modo de trabajar el hierro en este siglo.*

*Junto a la ferrería se puede visitar el Museo del Hierro Vasco.*



Argazkia/Foto: Josu Altzelai

Km **2** — 2

### Chillida Lantoki Museoa
### Museo Chillida Lantoki

Antzinako paper fabrika.Beheko solairuan, lantegi txikia eta forjako makinak aurkitzen dira, berta **"Peine del Viento"** eskultura sortu zuelarik. Goikoan grabatu lantegia aurkitzen da.

*Antigua papelera. En el piso inferior está el pequeño taller del artista así como las máquinas de forja con las que hizo muchas de sus grandes esculturas, como el **"Peine del Viento"** de Donostia. En el piso superior se sitúa el taller de grabado.*



Km **7** — 3

### Urrelur. Mineral eta Fosilen Museoa
### Urrelur. Museo de Minerales y Fósiles

Aizpurunea kultur etxean kokatuta. Bi zati ditu museoak; lehenengo zatia mineraletan oinarrituta dago eta bigarren zatia berriz fosilei zuzenduta dago.

*Situado en la planta baja de la Casa Cultura Aizpurunea que consta de dos partes: Una dedicada a los minerales y otra dedicada a los fósiles con piezas procedentes de los cinco continentes y presentadas en orden cronológico.*



Km **7** — 4

### Antioko Baseliza
### Ermita de La Antigua

Antioko baseliza, antzinako Zumarragako parrokia izan zen. Euskal herriko arkitekturaren benetako harribitxia. Zurezko eta harrizko barnealdea dira azpimarratzekoak. Hiru tenpluen ibilbidearen barruan dago Inaziotar bidea proiektuaren barruan. Interpretazio zentruarekin osatzen da.

*Ermita medieval, "Antigua" parroquia de Zumárraga, joya de la arquitectura religiosa popular vasca. Destaca su bello interior de piedra y madera. Pertenece a la Ruta de los Tres Templos dentro de Tierra Ignaciana. Se complementa con el centro de Interpretación.*



## ZERBITZU ENPRESAK
## EMPRESAS DE SERVICIOS

### AITZAKI Kirolak — Azpeitia (Gipuzkoa)

Bizikleten alokairua.
*Alquiler de bicicletas.*

Jose Antonio Agirre plaza 4, Azpeitia — **T.** 943 15 07 38

### ZATIKA Bike and Race — Zumárraga (Gipuzkoa)

Bizikleta denda eta tailerra.
*Tienda y taller de bicicletas.*

Zatika - Barrio Etxeberri s/n — **T.** 943 72 45 04



Km **20,4** — 5

### Jorge Oteiza Frontoiak
### Frontones Jorge Oteiza

Abangoardiako arkitektura-multzo paregabea osatzen dute Jorge Oteiza Frontoiek. Azkoitiak, Oteizak berak pentsatutako artelana. Euskal Herriko zazpi lurralde historikoen sinbolo diren sei pilotaleku hauek (Gipuzkoa, Lapurdi, Baxenabarre, Bizkaia, Nafarroa eta Araba izenekoak) pilotan jokatzeko moduen adierazgarri ere badira. Eskultura erraldoia osatzen dute eta, behin barruan, espazioak sentitzea eta haiekin jolastea da asmoa.

*Azkoitia, villa adoptiva del universal artista cuenta con un conjunto de arquitectura de vanguardia excepcional, obra inspirada directamente por el propio Oteiza. El conjunto consta de seis frontones (Gipuzkoa, Lapurdi, Baxenabarre, Bizkaia, Nafarroa y Araba) que simbolizan los siete Territorios Históricos de Euskal Herria y a su vez están en relación con las diferentes modalidades del juego de la pelota. Todos ellos forman una escultura gigante en la que, una vez dentro, podemos sentir los espacios y jugar con ellos.*



Km **24** — 6

### Loiolako Santutegia
### Santuario de Loyola

Loiolako Santutegiko monumentu-multzoa egundoko multzo arkitektonikoa da, basilika itzela nabarmentzen delarik, Vatikano txikia ere esaten diotena. San Inazioren bizitza eta lana erakusteko museo bihurtu den dorretxea eta basilika dira ezinbestean bisitatu beharreko guneak. Euskadiko kultura- eta erlijio-turismoaren funtsezko elementu bat da, eta Inaziotar Bidearen abiapuntua. Zumarragaraino doan lehen etapan, Urolako Bide Berdearekin bat egiten du Inaziotar Bideak.

*El complejo monumental del Santuario de Loyola es un imponente complejo arquitectónico en el que sobresale con fuerza la imponente basílica, conocida también como el pequeño Vaticano. La basílica y la Casa Torre de Loyola, convertida en museo en el que se muestra la vida y obra de San Ignacio de Loyola, conforman los dos espacios de visita obligada. Punto de inicio del Camino Ignaciano, que en su primera etapa hasta la localidad de Zumárraga coincide con el trazado de la Vía Verde del Urola.*



Km **24,5** — 7

### Xaguxatar parkea. Ekoetxea Azpeitia
### Parque Xaguxatar. Ekoetxea Azpeitia

Xaguxatar parkea, hiri-parkea da eta bizi-gune gisa sortu da, aisialdirako eta naturarekin harremana bilatzeko. Kontuan izanik Izarraitz Babes Bereziko Eremua dela, eta bertan 4 xaguxatar espezie desberdin bizi direla, xaguxatarra hartu da parkearen maskota bezala eta berak gidatuko du bisitaria panel informatiboen bidez parkeko espazio desberdinetara.

*El parque Xaguxatar se concibe como un espacio de vida donde se busca el esparcimiento y el contacto con la naturaleza. Teniendo en cuenta que el macizo de Izarraitz constituye un Lugar Especial de Conservación (LEC), y que en él habitan 4 especies diferentes de murciélagos, se ha tomado precisamente el murciélago como mascota del nuevo parque, y será él quien nos guíe en el recorrido, a través de la información recogida en diversos paneles.*



Km **27** — 8

### Burdinbidearen Euskal Museoa
### Museo Vasco del Ferrocarril

Azpeitiko geltokian dago, Urolako Trenbide zaharraren bihotzean, geltokiko eraikin historikoetan barrena barreiatuta: kotxetegiak, tailerrak, azpiestazio elektrikoa eta bulegoak. Toki horietan guztietan barrena bisitariak aukera izango du Urolako historia ezagutzeko, baina Euskadiko trenbide guztien historiaren berri izateko ere, museoak gorde duen ibilgailu historikoen bilduma bikainari esker. Nabarmentzekoak dira Azpeititik Lasaorako bidea egiten duten lurrun-lokomotorak, Euskadin gaur egun indarrean dauden bakarrak.

*Situado en la estación de Azpeitia, corazón del antiguo Ferrocarril del Urola, sus dependencias se distribuyen por los históricos edificios de la estación, cocheras, talleres, subestación eléctrica y oficinas. En ellos, el visitante podrá conocer la historia, no solo del Urola, sino de todos los ferrocarriles de Euskadi, a través de su gran colección de vehículos históricos, entre los que destacan las únicas locomotoras de vapor en funcionamiento en Euskadi que habitualmente recorren el trayecto de Azpeitia a Lasao.*



Km **35,7** — 9

### Ekainberri. Ekaingo kobako museoa
### Ekainberri. Museo de la cueva de Ekain

Ekaingo kobako labar-pinturen erreplika da Ekainberri museoa. UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zituen labar-pintura horiek, 2008ko uztailean. Erreplika zoragarri hau Zestoan dago, jatorrizko kobatik oso gertu, eta gure lurraren kulturaren jatorrietaraino eramango zaitu, zentzumenen bidez egingo duzun bidaia batean barrena. Bisitaldiaren osagarri, orain 15.000 urte bertan bizi zirenak nola bizi ziren, ehizan nola ibiltzen ziren edo sua nola egiten zuten ere senti dezake bisitariak.

*Ekainberri es la réplica en forma de museo de las pinturas rupestres de la cueva de Ekain, declaradas Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO en julio del 2008. Esta magnífica réplica, situada en Zestoa y muy cerca de la cueva original, te trasladará en un viaje a través de los sentidos hasta los orígenes de la cultura de esta tierra. Se puede completar la visita sintiendo cómo vivían, cómo cazaban o cómo hacían fuego las personas que habitaron este lugar hace 15.000 años.*



## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

1. Errespeta itzazu ingurumena, inguruko herritarrak eta animaliak.
   *Respeta el medio ambiente, la población del entorno y los animales.*
2. Gozatu naturaz zaratarik eta presarik gabe.
   *Disfruta de la naturaleza sin ruidos y sin prisa.*
3. Kontuz ibili ibilgailuekin partekatzen diren tarteetan, eta gogoratu oinezkoek lehentasuna dutela.
   *Circula con precaución en aquellos tramos que sean compartidos con vehículos y recuerda que los peatones tienen prioridad.*
4. Errespeta itzazu zirkulazio-arau orokorrak.
   *Respeta las normas generales de la circulación.*
5. Kontu handiz ibili, batez ere tunelak eta bidezubiak zeharkatzerakoan.
   *Mantén la precaución, especialmente en travesías de túneles y viaductos.*
6. Linterna eraman ezazu tunelak dituzten tarteetan.
   *Lleva linterna en los tramos donde existen túneles.*
7. Bizikletaz bazoaz, erabili beti kaskoa.
   *Si vas en bici, utiliza siempre el casco.*

Km **35,7** — 10

### Lili Jauregia
### Palacio Lili

Ikusi nolakoa zen Gipuzkoa orain lau mende, **Lilitarren ohorea** antzezlanaren bitartez. Erdi Aroko Lili Jauregiak eskaintzen digu esperientzia hori bizitzeko aukera. Historia orainera ekarriz, kontakizunaren gertaeren toki berean kokatuko gaitu.

*Conoce mediante la obra de teatro **"El honor de Lili"** cómo era la Gipuzkoa de hace cuatro siglos. El medieval Palacio de Lili es el escenario de esta experiencia, donde la historia cobra vida, colocándonos en el mismo lugar de los hechos del relato.*



Km **37,5** — 11

### Iraetako Tren Txikia
### Tren de Iraeta

**Iraetako trena** Euskadiko miniaturako trenen lehen zirkuitua da, Zestoako Iraeta auzoan, futbol-zelaiaren ondoan, eraikitako tren-parkea. Abiapuntuaren arabera, Urolako Bide Berdearen hasieran edo amaieran aurkituko dugu, eta beraz, bide berdearen erabiltzaile eta familiak erraz askoan iritsi daitezke bertara. Hortaz, bide berdearen erabilera ludiko eta familiarraren osagarri ezin hobea dela esan dezakegu.

*El **Tren de Iraeta** es el el primer circuito de trenes en miniatura de Euskadi, un parque ferroviario construido junto al campo de fútbol de Zestoa en el barrio de Iraeta. Su localización al final o al inicio según se mire del trazado transitable de la Vía Verde del Urola, lo hace muy accesible para las familias y usuarios de la vía verde, lo cual lo convierte en un complemente ideal al uso lúdico y familiar de la propia vía verde.*



Km **44,3** — 12

### Algorri
#### Algorri Naturaren Interpretazio Zentroa
#### Centro de interpretación de la naturaleza Algorri

Izenak berak dioen bezala, Zumaiako natur ondarea ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen duen museoa da. Bertan, kostako herri polit honetan agertzen diren ekosistema desberdinei buruzko erakusketa dago; hala nola, Urola ibaiaren itsasadarra, Beduako uharte eta padura multzoa, Santiagoko dunak eta San Migueleko artadia. Hauez gain, ordea, Zumaia eta Deba bitarteko marearteko zabalgune ikusgarriak (Babestutako Biotopo izendatu zuten guneak) eta, nola ez, mundu mailan altxor geologikotzat dauzkaten Zumaiako itsaslabar zoragarriek ere badute beraien txokoa.

*Es un museo que nos ofrece la posibilidad de conocer y entender el patrimonio natural de Zumaia. Gracias a un área expositiva en la cual se describen los diferentes ecosistemas existentes en este precioso pueblo costero, se pueden descubrir el patrimonio natural de la desembocadura del río Urola, el conjunto de la isla y las marismas de Bedua, las dunas de Santiago y el encinar de San Miguel. Además, se dedica un espacio a la impresionante rasa mareal ubicada entre las localidades de Zumaia y Deba (declarado Biotopo Protegido) y, cómo no, a los sorprendentes acantilados de Zumaia, considerados un tesoro geológico a nivel internacional*



Km **44,3** — 13

### Ignacio Zuloaga Kultur Gunea
### Espacio Cultural Ignacio Zuloaga

Gaur egun **Z Kulturgunea** izena duen museo hau Ignacio Zuloaga margolariak berak sortu zuen (1910-20), XV. mendeko ermitaren eta Santiago bideko erromesen ostatuaren hondarrak zaharberrituta. Eraikin bat erantsi zion multzoari, margolariak berak estudio-lantegi gisa erabili zuena. 2012. urteaz geroztik Z Kulturguneak erakusketa iraunkorra du: euskal margolariaren obra sorta bat, haren bilduma historikoa (XIII-XX mende bitartekoak) eta nazioarteko artista moderno eta garaikide ezagunen obra esanguratsuak ditu, besteak beste Picasso, Miró eta Tàpies.

***Z Espacio Cultural** es un museo creado en su momento (1910-20) por el propio pintor Ignacio Zuloaga, restaurando las ruinas de una ermita (S. XV) y de una hospedería de peregrinos del Camino de Santiago. Completó el conjunto con un edificio anexo que utilizó como estudio-taller. Desde 2012 Z Espacio Cultural expone permanentemente una selección de obras del pintor vasco, de su colección histórica (S. XIII-XX) y destacadas obras de artistas modernos y contemporáneos reconocidos internacionalmente (Picasso, Miró y Tàpies, entre otros).*



14

### Geoparkea Geoparque
#### Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea
#### Geoparque Mundial UNESCO de la Costa Vasca

Euskal Kostaldeko Geoparkea Debako, Mutrikuko eta Zumaiako herriek osatzen dute. Geoparkeko 13 kilometroko itsaslabarrek haitz geruzek osatutako formazio ikusgarria gordetzen dute, flysch izenekoa. Liburu baten antzera, Lurraren historiaren 60 milioi urte baino gehiago irakur daitezke han. Bisitariak itsaslabarretan oinez ibil daitezke edota itsasontzian ibilaldi ederra egin, denboran zehar milioika urtetako bidaia egiteko.

Kostaldetik barrualdera joanda, Karstaren mundua aurkituko dugu. Hanhemenka dauden kobazuloetako asko gure arbasorik urrunenen bizileku izan ziren, eta ederki gorde dute gaurdaino haien jardunaren eta kezka kulturalen hamaika aztarna.

*El Geoparque de la Costa Vasca está formado por los municipios de Deba, Mutriku y Zumaia. Los 13 kilómetros de acantilados de Geoparkea guardan una espectacular formación de capas de roca llamadas flysch que, a modo de un gran libro, nos muestran más de 60 millones de años de la historia de la Tierra. Puedes caminar por estos acantilados o realizar una excursión en barco y viajar millones de años en el tiempo.*

*En el interior del territorio hallamos el mundo del Karst. Muchas de las cuevas de estas montañas fueron ocupadas por nuestros antepasados más lejanos, que dejaron en ellas vestigios de su actividad y sus inquietudes culturales.*



## INFORMAZIO ZABALTZEKO
## PARA AMPLIAR INFORMACIÓN

Turismo-zerbitzuak, informazio-bulegoak, lotura interesgarriak, deskargak, berriak...

*Servicios turísticos, oficinas de información, enlaces de interés, descargas, novedades...*

www.urolagaraia.com
www.urolaturismo.eus
www.gipuzkoabizikletaz.eus



www.euskaditurismo.eus